



Behi euskaldun baten memoriak

Nobela lantzeko proposamen didaktikoa

Egileak: Lidia Alkorta, Maite Madoz eta Mirentxu Oteiza

EIBZ, 2019

Liburuaren fitxa



Izenburua: Behi euskaldun baten memoriak

Idazlea: Bernardo Atxaga

Argitaletxea: Pamiela

Argitalpen data: 1991

Orrialde kopurua: 168

Laburpena

Liburu honetan Mo behi euskaldunaren bizitza kontatzen da. 1940ean jaioa Balantzategi baserrian, bere "barruko ahotsari" egindako promesa baten ondorioz idatziko ditu bere memoriak. Hauei esker, Moren bizitza ezagutuko dugu, bukatuazirudien Gerra Zibilaren ondorengoak, La Vache behi lagunarekin bizitakoak, nolatan ezagutu zuen PaulineBernadette eta bere azken egunak Zuberoako komentu batean PaulineBernardette mojarrekin.

Zergatik irakurri liburua

Gerrari buruzko kontakizun gordina eta bidenabar sentibera eta tarteka umoretsua ere. Komentu batean moja baten zaintzapean bizi den Mo behiari barruko ahots batek bere memoriak idazteko agindua emanda, Mo behiak 1940 urtean Balantzategi baserrian jaio zela kontatuz abiatuko du bere eginbidea. Balantzategin pasatako denboran bertako gertakari harrigarrien berri emateaz gainera, behi heldua izatera nola heldu den ere kontatuko digu, baserriko sekretuaren berri jakin arte, amaitu berri den Espainiako Gerra Zibilarekin loturik.

Atariko jarduera orokorrak

1. Jarduera. *Liburuaren azala*

Helburuak. Ikasleen jarreran eta aurrezagutzan eragitea:

- *Jarrera:* ikasleengan motibazioa eta interesa piztea.
- *Ezagutza soziokulturala:* literatur lana ulertzeko baliagarri izan daitekeen informazioaz jabetzea.

1.1. Liburuaren azalari erreparatuko diogu. Hiru behi daude, zein izanen da liburuaren protagonista? Behi gorria ala beltza? Zergatik?

Irakasleentzako baliabideak:



2. Jarduera. *Liburua eta mundua*

Helburuak. Ikasleen aurrezagutzan eragitea:

2.1. Behi euskaldun baten memoriak, euskaraz gain, hainbat hizkuntzatan argitaratu da. Ezetz asmatu zein hizkuntzetan dauden ondorengo liburu hauek?

- *Memoirevaneenkoe*
- *MemoriasdumaVaca*
- *Memorie di una mucca*
- *Memoriasdunhavaca*
- *Memorajoj de euskabovino*
- *Memoiremeinerbaskischenkuh*
- *Memòriesdúnavaca*
- *Kujtimet e njelope*
- *Mémoriesdúnevache*
- *Memoriilevacutei Mu*
- *Memorias de una vaca*

3. Jarduera. Liburuen azalak

Helburuak. Ikasleen aurrezagutzan eragitea:

3.1 Orain, hainbat hizkuntzatan idatzitako liburuen azalei erreparatuko diegu. Zer diozu? Alderik bai? Zer azpimarratzen du azal bakoitzak, zertan jartzen du arreta?



3.2. Zer izanen dira memoria horietan agertuko dena? Zer dira memoriak? Nork idazten ditu memoriak?

Irakurketa ibilbidea

1. Pasartea. Barne ahotsa.

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:
Ezagutza literarioa (1): Disziplinartekotasuna
Ezagutza literarioa (2): Simbologia
Ekimena eta ekintzailea.
Hizkuntza gaitasun komunikatiboa.

Irakurri aurretik

1.1. Zer da barne ahotsa?

Helburua. Disziplinartekotasuna lantzea

HESIAN taldearen *Infinitoa* izeneko abestia ikusi-entzungo dugu talde handian. Ondoren, talde bakoitzari, Zuriñe Hidalgo abeslariak abestiari buruz idatzi duen zutabea emango diogu eta irakurketa partekatua bidez irakurriko dute. Bukatzeko, jarraian datozen galderak erantzungo dituzte.

Infinitoarekin
_____ nintzateke
amaierarik ez duen
ilunabarraren
mila _____
marraztuko nuke
idei bat urruntasunera
_____ ez
_____ dugu zain

Infinitoarekin
_____ nintzateke
amaierarik ez duen

mila kolorekin
_____ nuke
idei bat urruntasunera
itzulerarik ez
ez ezaguna dugu _____

Hondar ale bakoitzeko
_____ bat _____ bat
errealitate bat
ur tanta bat

Euria sentitu bestaldea ukitu
korronteen esku daude
uretan _____
amildegi berri bat
ur jauzia _____
azalak arnastu dezan
bertigo sakonean
salto egitera noa

Hor garaile bakoitzeko
desio bat amets bat errealitate bat
ur tanta bat

Hondar ale _____
desio bat amets bat errealitate bat
ur tanta bat

Hondar ale bakoitzeko
desio bat amets bat errealitate bat
kantu bat.

<https://www.youtube.com/watch?v=3IKhk5S9SNM>

Irakurri bitartean

ZURIÑE HIDALGOREN HAUSNARKETA

Infinitoari begira jarri naiz eta infinitoak, nire zentzumen guztien jakin-mina piztu du. Haur txiki bat bezala, kuriositatez beteta nago, guztiz liluratuta, txundituta, infinitotik begirada kendu ezinik. Bost zentzumenak aktibatu ditut, seigarrena inoiz ez baita deskonektaturik egon. Hauetatik jasotako sentsazioak bildu eta seigarren zentzumen horri helarazi dizkiote. Bai, seigarren zentzumena, ez nabil ezer asmatzen ari. Gure seigarren zentzumena intuizioa da, eskoletan irakasten ez digutena, bizitzan zehar normalean lantzen ez duguna, askok ezagutzen ez dutena eta beste batzuk ahaztuta dutena, baina guzti guztiok barnean daramaguna. "Barneko ahotsa" ere esaten zaio, eta hau, gure bizitzako bidaia lagunik leialena da. Intuizioa bizirik dago, bai, baina adi egon behar gara eta hitz egiten digunean, arretaz entzun behar diogu, kasu egin, bestela, lo hartzen du.

Ongi da, heldu da ba unea. Nire burua topatu nahian, nire burua ulertu nahian, zer nahi dudan jakin nahian, barruko zirrarak, barruko hotsak entzuteko unea heldu da.

Nire buruarekin guztiz konektaturik eta infinitoari begira nagoela, lehen galderak suertatzen zaizkit: zer egongo da haratago? zer ote dago urruntasun horretan? ezin dut ikusi, eta ukitu? eskua luzatzen dut baina... ez naiz iristen. Hipnotizaturik egongo banintz bezala, nire nahi bakarra momentu honetan infinitoarekin galtzea da, baina urrunegi dago. Orduan, bat-batean, zeruan lehen koloreak agertzen dira eta ideia bat bururatzen zait. Ilunabarra hasi da eta honek sortutako mila koloreekin bide bat marraztera noa, bide bat urruntasunera, infinitora. Ezezaguna beti erakargarria egiten zaigu eta nik, ezezagunaren bila joatea erabaki dut. Baina, antza, bide honek ez du itzulerarik. Zer egin? Geratu ala alde egin? Konformatu ala arriskatu? Iraun ala bizi? Momentu batez beldurraren mamua agertu zait, zalantzak izan ditut, baina... uste dut arriskatzera noala. Ez dut gezurrik esango, beldur naiz, baina beldur apur batekin bada ere, lehen pausoa ematera noa. Zerbaitek barrenean baietz esaten dit. Bai, ziur nago...banoa!

Mila desio dauzkat betetzeko, mila amets...munduan dauden hondar ale eta ur tanta adina desio eta amets.

Hauek errealitate bihurtu nahi ditut, beraz, bideari ekinez hauek betetzera noa!

Zuriñe Hildalgoren Facebook-eko profiletik, 2016ko abenduaren 11

- Nola deitzen dio Zuriñek bere barne ahotsari?
- Zuek badituzue ametsak? Zein dira?
- Zuen barne ahotsak zer esaten dizue?

- 6 urte dituen ume baten ametsa zein izan daiteke? Eta zuen gurasoena? Aitona-amonena?

Irakurri bitartean

Lehenengo pasartea irakurri:

Nolanahi ere, sinistu edo ez sinistu, nire barruko ahots hura hantxe egoten zen beti, eta bere errealitatea onartzea beste erremediorik ez neukan. Deituko nion Aingeru Guardakoa, deituko nion Izpiritu, Mintzo, Ahots edo nahi dena baina izen batekin nola bestearekin, hura beti nire barruan, nire mihia bera bezala edo oraindik hurbilago.

- *Zein izen daukazu? galdetu nion aspaldi, berarekin hitz egiten hasi nintzen garaian.*
- *Zuk nahi duzuna lagun maite. Nirekiko guztiak zure esku daude. Zure morroia nauzu. Eta, bide batez esanda, oso gustuko dut neure morrontza.*
- *Jakina, nola ez. Baina, erantzun mesedez, zein duzu izena?*
- *Barkatu,lagun baina, arestian adierazi bezala, zure esanetara nago. Morroia bataiatzea nagusiari dagokio.*
- *Ondo Setatsua zara behintzat- haserretu nintzen azkenean.-Zorria bera baino setatsuagoa! Aingeru Guardakoa zaitudan ala izpiritu maltzur ez dakit; nire barruan egoteko dituzun arrazoiak ez dakizkit; baina nolakoa zaren, hori badakit. Beti zurea egin beharrekoa, holakoxea zara zu!*

Hartan, eta neukan amorrazio muturrarekin, erabakia hartu nuen: Aingeru Guardakoa omen zen hari Setatsua deituko niola nik. Eta harrezkero ez da besterik izan niretzat: Setatsua, Setatsua eta Setatsua. Setatsua, Setatsua eta Setatsua.

- *Ezin esan munduko izen politena denik-entzun nuen orduan-baina itsusi edo zatarrena ere ez da.*

Hala eta guztiz ere ,eta esandakoak esanda, hasiera batean ez nion gaizki erizten nire barruko Setatsuari, eta arrazoi pittin bat ematen nien bere alde hitz egiten zidatenei. Aldika-aldika, nire lagunik lagunena iruditzen zitzaidan, une atseginetarako adiskide ona eta garrantzetarako hobe; hitz egiten zuenean gustura entzuten nion. Gogora datorkit, zentzu honetan, nire aurreneko neguan gertatutakoa. Orduan bai egin zidala konpainia! Orduan bai izan zitzaidala lagun! Den-dena elur elur egun batean gertatu zen.

- *Lagun on-ona, elurra ari du-esan zidan zidan barrutik-. Elurra hasi du eta etxetik urruti gaude. Hobe duzu mendian behera abiatu.*
- *Mendian behera? Zerori joan zaitez, nahi baduzu!- erantzun nion desairea eginez. Hura zen elurra ikusten nuen aurreneko aldia, eta nire bizkarrean azkura hotz bat egiten zidaten mataza haiiek ez nituen arriskutsutzat jotzen. Eta hala, belar jateari ekin nion ostera nire arreta osoaz, zeren hori ere esan beharra dago, ni itsua bainaiz mendiko belar motx eta bixiarekiko, behin ere ez bainaiz konformatu izan ibarretako landare zozo eta urtsuekin.*

Bururik altxa gabe eta belar ttikia jaten zenbat denbora egin nuen ez dakit, baina asko ez nintzen egongo, ez zait iruditzen. Agian ordu erdi, agian ordubete. Ordea, ari zuen elur jasagatik, berehala gelditu nintzen jateko modurik gabe. Aurreratzen nuen ahoa, eta izotz mokadu bat sartzen nuen bertan. Egiten nuen uxar zerriei ikasita bezala, eta lehenengoan, hotzikarak ematen zizkidan puska bat barrura. Amorrarazita, ondo zutitu eta ingurura begiratu nuen. Eta orduan bai ikaratu nintzela. Ikusi nuen paisaia ez zen gutxiagorako.

EIBZren (Egileak: L. Alkorta, M. Madoz eta M. Oteiza) lan hau [CC BY-SA 4.0](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) lizentzia baten mende dago.



Harkaitz beltza eta elurra, han ez zegoen besterik. Ni jaten aritutako belazea txuri zegoen; eta txuri hurrengoa; eta txuri beste guztiak ere. Belaze haiek guztiak zeharkatu eta etxerantz joaten zen bidea, berriz, ez zen inondik ageri, zurtasunean galdua zegoen.

“Orain nondik joango naiz etxera?” , esan nion neure buruari harkaitz beltzarantz pausu batzuk emanaz. Pixka bat larrituta nengo.

Marru egin nuen, ea behi adiskideren batek erantzun eta etxerako bidearen ideia ematen zidan, baina isiltasunak jan egin zuen nire dei hura, zapoak eulia jaten duen bezalaxe. Eta berriro ere, isiltasuna, elurraren zuria, harkaitz haren beltza. Eta bitarte horretan guztian, nire barruko Setatsua txintik atera gabe. Antza, mindua zegoen aurrez emandako erantzun txarrarekin.

Zurtasunak zuri segitzen zuen lehenengo izarra zeruan azaldutakoan. Eta baita bigarrena azaldu zenean ere. Eta baita hirugarrena, laugarrena eta bosgarrena azaldu zirenean ere. Hurrena ilargiaren txanda izan zen, eta hark bai, hark ekarri zuen aldaketarik, paisaiari itzal batzuk erantsi baitzizkion. Gauza gutxi, hala ere. Gehien-gehiena, elurraren zurtasunak betetzen zuen. Eta hantxe nengoan ni, zurtasunaren erdian asper-asper eginda. Esaera zaharrak dioen bezala:

Mendi elurtua, behi aspertua.

Ni nintzen behi hori. Eta bai, asper-asper egina nengoan. Non zegoen etxerako bidea? Ez al zuen azaldu behar? Bada, ez, ez zirudien azaltzeko zenik.

- *Zer! ez al didazu ezer esan behar?- atera zitzaidan azkenean. Benetan, zerbait egin beharra neukan, bestela hil egingo nintzen alferkeriaz.*
- *Esango dizut hitz bat, baina ez zuk entzun nahi duzuna.*

Bistakoa zen amorrazioa zegoela, zeren ez baitzidan bere lagun on-ona nintzenik aipatu ere egin. Pentsatzen jarrita, Setatsuak berak ere oso gaztea izan behar zuen garai hartan, bestela ez zen erantzun txar batengatik haserretu izango. Txarragoak ematen dizkiot orain, eta ez da asko estutzen. Jakina, aspaldi honetan berak nahi duena egiten dudala, hori ere bai.

- *Esan bada. Nagoen aspertuarekin, edozein gauza entzungo nuke-esan nion egun hartan.*
- *Laguna, desenkusatu egin behar duzu nirekin. Elurra zela eta etxeratzeko eskatu dizudanean, obeditu beharrik ez zeneukan. Izanez ere, zu libre zara, gogo duzuna egin dezakezu. Baina baldarki, trakeski eta itsuski erantzuteko eskubidea, hori, lagun, ez daukazu. Aurrena edukazioa, eta gero gerokoak.*

Eskuinetara eta ezkerretara begiratu nuen, harkaitz beltzaren honanzko aldean eta haranzko aldean: bideko arrastorik ez. Gaueko iluntasunak uzten zion leku guztian, mendiak txuri jarraitzen zuen. Asper-asper eginda nengoan.

- *Barkatu!- bota nuen azkenean.*
- *Barkatua dago, lagun-esan zuen Setatsuak oso modu alaian, haserrea kolpetik eta erabat ahaztuz. Eta geroxeago, hasperen bat eginez:- Begira non suertatu garen oraingoan!- gaineratu zuen.*

Bernardo Atxaga, *Behi euskaldun baten memoriak*, Pamiela, 15.-19. orrialdeak 1991.

1.2. Irakurmena eta ulermena

Denon artean pasarteak ozen irakurri, eta ondoren, galderak erantzun beharko dituzte lauko taldeetan.

- Nola izena du Mo-ren barruko ahotsak? Zergatik?
- Beste izen batzuk aipatzen ditu. Zein dira?
- Zuk zein izen jarriko zenioke zure barruko ahotsari?

1.3. Animalien sinbologia

Helburua. Sinbologia lantzea

Ondoko pasarteak irakurri eta galderari erantzun lauko taldeetan.

*La Vache qui Rit: Nire barruko ahotsak ez du behi batena ematen. Beti gauza berdinak esaten dizkit, borroka kontuak beti: "Jo horri, sartu adarra hari" eta antzekoak. Eta ikuilutik alde egiteko ere esaten dit: "Alde hortik basora!. Zenbaitetan, halaxe pentsatzen dut, zerbait oker joan eta **basurde** baten ahotsa eman zidatela, ez behiarena.*

55. orrialdea

- Nolako ote da basurdearen barruko ahotsa? Usoarena?, zezenarena?, oilarrarena?, txerriarena? eta ardiarena?
- Izen bat jarri bakoitzari (izenondo bat izan daiteke).

Basurdea	
Usoa	
Zezena	
Oilarra	
Txerria	
Ardia	

Irakurri ondoren

1.4. Sormena lantzen

Helburua. Sormen literarioa lantzea

Mo mendian dago, elurra ari du eta ez daki nola itzuli baserrira. SetatsuK lagunduko dio.

- Bakarka, Idatzi kapitulu honen amaiera, pasarte hau txertatuz:
“Otsoak! Hamasei otso! Hamasei otso gosetu! Eta, ni, berriz, behia.”

Pasartean *Mo* eta *Setatsuren* arteko elkarrizketa izango da nagusi.
Hasi aurretik, begiratu zer erregistro erabiltzen duen bakoitzak: formala edo ez-formala.

2. Pasartea. Arroza txuriaren sekretua

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:

- Ezagutza literarioa: sinboloak literaturan
- Ezagutza literarioa: narratzaile motak
- Ezagutza literarioa eta soziokulturala: gerra zibila Nafarroan

Irakurri aurretik

2.1. Atariko jarduera

Helburua. Ezagutza soziokulturala lantzea

Talde txikian, datu batzuk emanda, pertsonaia historiko batzuk aurkitu behar dituzue eta ondoren talde handian aurkeztu. Nortzuk ziren? Non bizi ziren? Familiarik zuten? Noiz bizi izan ziren? Nola hil ziren?

Biek zerikusia dute *Behi euskaldun baten memoriak* liburuan lantzen den gai batekin.

Izena:	J.J.G.S. (emakumea)	M. L. (emakumea)
Jaioterria, urtea:	Donamarian, 1899n.	Larraga
Heriotza:	1936/08/30	1936/08/30
Gertaera:

Irakurri bitartean

Bigarren pasartea irakurri:

Ikuiluan eguerdi aldera sartu ginenez, neguko arratsalde laburretako bat neukan gauerarte: orduan etorriko ziren mendikoak beren zaldietan, orduan jarraituko genuen La Vachek eta biok Balantzategiko arazoez hitz egiten. Baina, suerteak hala nahi izanda, arazo haiei buruzko zerbait argigarria jakingo nuen arratsalde hartan; gurpilari lokatz izpi batek alde egingo zion, eta izpia, etxe hartako sekretu bat, nire eskuetara etorriko zen. Eta guztia banketea hasi eta berehala gertatu zen, behi batek -beltzen artean gizajo hutsa zen batek, zehazki esateko-, niregana etorri eta pentsu pixka bat eskatu zidanean.

- Emango dizut -erantzun nion-, baina zer gertatu zaizu? Nolatan jan duzu zure parte hain azkar?
- Nire partetik ez dut jan, Mo -erantzun zidan berak aurpegi penatu jarritz-. Zera gertatzen da, ez zaidana batere gustatzen gaur ganbelan jarri didaten pentsua. Bikor txuri batzuk dira, gogor gogorak, ahoan sartu ezkerio mihi azpian eransten direnak.

- Bai? Ea erakutsi nolakoak diren! -harritu nintzen. Ondoren, begiratu bat bota nuen behi gizajoxoaren ganbelan. Pentsu zuria zegoen han, baina gizonentzako, ez behientzako. Pentsu hura arroza zen.

- Zure pentsu pixka bat jaterik ba al daukat? -galdetu zidan behi gizajoxoak.

- Jan nahi duzun guztia -erantzun nion azalean ezin kabituz. Senaz-edo, garrantzi handiko deskubrimendu bat egina nuela konprenitu nuen. Zergatik zen garrantzi handiko, hori zen une hartan burura etortzen ez zitzaidana. Gauzak hola, laguntza eskatu nion Setatsuari. Zer esan nahi zuen arrozarenak? Ezagutzen nuen bere iritzia, alegia nire kabuz pentsatzen ikasi beharra neukala, eta gogoratzen zitzaidan otsoen arazo hartan berak hartutako joera axolagabea, baina aldi hartan lagundu egin behar zidan. La Vache eta biok tratatubidea genuen berriro; errotua zirudien, jeranio puxka tarro berriaren bezalaxe, garai batean hautsita egondako adiskidetasuna. Eta nik zerbait eskaini nahi nion. Deskubrimendu haren nondik norakoa, kasu.

- Lagun on ona -entzun nuen orduan, eta segituan jakin nuen Setatsua ondo portatuko zela-, norbait konfunditu delako, horregatik zegoen behiaren ganbela arroz bezalaxe. Norbait hori, Bizkar Oker edo Geneveva bera, ez da jabetu egiten ari zenaz. Arroza jarri du pentsu arrunta zelakoan.

- Eta nondik atera da arroz zaku hori? Zertarako behar dute hainbeste arroz Balantzategin? Beraientzako?

- Ez zait iruditzen, lagun. Nire ustez arroza eta beste antzeko jakiak mendiko jende horrek eramaten ditu zaldietan kargatuta. Mendian izango d noski janari premia, batez ere orain, negu gorrian gaudela. Baina ez dut uste azalpen luzeagoa eman behar dizudanik. Dagoeneko ez zara hain ume, eta logikaz pentsatzen ikastea nahitaezkoa zaizu. Ez al duzu gertatzen ari den konprenitzen? Nire ustez ez da hain korapilo latza.

Ikuiluaren txoko batean nengoan, geldi geldirik eta gurpilak botatzen zituen lokatz izpiak batzeko ahaleginak egiten. Begiak arrozaren zurtasunean neuzkan jarriak, ea han zerbait ikusten nuen. Eta bai ikusi ere. Ametsetan bezala, zakuz kargatutako Chevrolet kamioia ikusi nuen gure haranean sartzen, berarekin korrika apustuak egiten nituenean bezalaxe.

- Mendira bidaltzen duten arroz hori kamioian ekartzen dute -hasi nintzen mantso mantso, logikaz beterik-. Baina disimulatuta ekarri ere, gainean gure pentsu zakuak jarrita. Hola ez balute jokakua, Balantzategiko etsaiek...

Gelditu egin nintzen une batez. Logikaz pentsatzeak berotu egiten zizkidan muinak, asko nekatzen ninduen.

- Segi, lagun, ondo ari zara eta! -entzun nuen.

- Balantzategiko etsaiak! Antiaju Berde eta bere laguntzaileak! Horiengatik ibiltzen dira disimulan! Bestela, auskalo zer kastigu hartu beharko luketen! Bai, kamioiak ezkutuan ekartzen ditu arroza eta gainerakoak...

- Baba eta fideoa, jakin nahi baduzu -lagundu zidan, eskuzabal, Setatsuak.

- Eta halako batean -jarraitu nuen nire logikaz, izugarri nekatuz-, mendikoek zakuen bila jaistea erabakitzen dute. Egun horretan, disimulatzeko premiarik gabe, arroza eta gainerakoak tapaki izan den pentsua ematen digute, zorioneko banketea.

- Oso ondo, lagun, ni ere ondorio berdinerari iritsi nintzen lehengo batean. Badakizu, harritu egiten ninduen Genevevaren alfer gastuak. Zergatik erosi pentsua belarra nahi adina edukita? Ezinezkoa zen, Genevevak ez dirudi dirua derizkionetan gastatzen dutenetakoa. Eta jakina, ez eta izan ere. Zuen pentsua dela eta, ederki zurtzen ditu Chevroletaren joan-etorri eta abarrak!

- Orduan, etxe hau... -hasi nintzen begiak arrozaren zuritik kendu eta La Vache zegoen tokira begiratu. Kopeta kiskaltzen neukala iruditzen zitzaidan, ezin nuela logikaz areago pentsatu. Esaldiak Setatsuak buka zezan nahi nuen. Baina alferrik, berak ez zion ekiten, niri zegokidan osatzeko lana. Eta bitarte guztian, gurpilari libratutako lokatz izpiak iristen zitzaizkidan: gerra izan zela haran hartan, afusilatu egin zutela Genevevaren gizona, La Vachek esaten zuen bezala gerra ez zela artean bukatu, Antiaju Berdek Balantzategi zaintzen zuela

hortzaundien bitartez, zaldia gauez jaisten zirela beren kargamendua hartzera, eta noizean behin bakarrik, gau jakinetan. Azkenean, izpi haiekin guztekini lokatz figura bat lortu nuen, esaldi bat, egia bat:

- Oraindik errenditu ez den ejertzitoaren almazena da Balantzategi!

Bernardo Atxaga, *Behin euskaldun baten memoriak*, Pamiela, 1991, 99-102 orrialdeak.

2.2. Euskal txoriak eta gurpilak.

Helburua. Ibilbide sinbolikoak lantzea

2.1.1. Ezagutzen duzu Mikel Laboaren [Txoriak txori](#) kanta? Zertaz doa? Nor da protagonista? Non gertatzen da? Nor da/Zer da txoria?

*Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo.*

*Bainan, honela
ez zen gehiago txoria izango
Eta nik...
txoria nuen maite.*

2.1.2. Orain txoriak albo batera utzi eta beste gauza batean jarriko dugu arreta: gurpilak. Talde txikietan egin gogoeta gurpilen inguruan (1-2-4 teknikaren bitartez), eta ondoren talde handian aztertu denen erantzunak.

- Nolakoak dira gurpilak?
- Zertarako balio dute?
- Normalean ematen diogun erabileraz gain, besteren bat bururatzen zaizu?
- Irakurri pasarte eta aztertu testuan hirutan agertzen den "gurpila". Zer adierazi nahi du? Zeren sinboloa da?
- Gurpilaren izpiei esker, Mo egoeraz jabetzen da: zein da?
- Bilatu beste sinboloren bat kanta edo poemaren batean.

2.3. Nork, nondik eta nola kontatzen dira istorioak?

Helburua. Ahots narratiboak lantzea

2.3.1. Entzun Berri Txarrak taldearen [kanta hau](#) letra irakurtzen duzun bitartean.

MARAVILLAS

*Ostikoz bota digute atea
zein dira deitu gabe datozenak?
Zer nahi dute aita, zuzenean zuri begira?
Zein dira oihuka mintzo direnak?
Norbaitek oroituko ditu etorkizunean
ahantzuraren zingira honetan gertatuak*

*Ikara; bortxaren bigarren izena
zein dira deitu gabe datozenak?
Gogoan dut orain aspaldiko aholkua:
ez fida herraren mirabe denaz
Norbaitek oroituko ditu etorkizunean
ahantzuraren zingira honetan ito dituztenak
abesti berriren batean
zuhaitz zaharren azaletan
Argaren zilar uretan
Iluntzeetan
Ostikoz bota digute atea
zein dira deitu gabe datozenak?
Agur ahizpak eta senitarteko guztiak
agur lagunak eta jolasten ginen tokia
adio ene Larraga maitea
Norbaitek oroituko ditu etorkizunean
ahantzuraren zingira honetan ito dituztenak
abesti berriren batean
zuhaitz zaharren azaletan
Erriberako izarretan
Nafarroan...*

Maravillas Lamberto eta 1936ko gerran ahaztutako guztiei eskainia.

2.3.2. Orain irakurri Xabier Montoiaren *Golgota* eleberriaren hasiera.

Maravillasen etxera sartzen direneko unea

“Euria ari zuen, ongi gogoan du Felisak. Afaltzen hastekotan zeuden. Euriaren hotsak isilduko zuen autoena. Atean jo zuten. Gogor, behin eta berriz. Fusilaren ipurdiaz jo, berehala zabaltzen ez bazieten atea bota eginen zutela mehatxuka. Zatitzen ari zen ogia eta labana mahai gainean utzi eta lasai egoteko eskatu zien aitak, irekitzera joan aurretik. Amak eskuan zeukan burruntzalia baztertu eta alabak bildu zituen bere inguruan. Oldarrean sartu ziren, garrasika. Zerbait esaten saiatu zen aita. Ezin. Saihetsetan hartu zuen lehen kolpea. Lurrera erori zen. Hots sor bat entzun zen, hezur hautsi baten antzekoa. Lurrean zetzanaren emazte eta alaben ahoetatik intziri bat irten zen. Alabek aitarengana egin nahi izan zuten. Amak eragotzi zien. Bere kontra estutu zituen. Aise eutsi ahal izan zien alaba gazteenei. Zaharrenari ez. Amaren eskutik askatu, fusildunei familia bakean uzteko arrenka eskatzen zien aitarenganaino heldu, hari atxiki, eta gizon armatuen eta aitaren gorputz minduaren artean berea jarri nahi izan zuen. Horma bat izanen zen alabarik zaharrena, aita babestuko zuen horma sendoa. Ostikoka erauzten saiatu ziren jadanik odoletan zegoen aitarengandik. Behin eta berriz ostikatu zuten, harik eta talde-buru bibote meheduna nekatu eta bere gizonei lehenbailehen bereiz zitatzela agindu zien arte. Talde burua baino urte gutxi batzuk gazteagoak ziren haren gizonak, eta Gorriaren alaba zaharrena baino zaharxeagoak. Beso banatatik hartu eta aise altxatu zuten. Isilarazten ahalegindu ziren. Neskak hozka egin zion bati eskuan. Puta halakoa. Zaplazteko bakar bat aski, neska sukaldeko zokoraino bidaltzeko. Alaba jipoituari hurbiltzera egin zuen amak. Erreguak berritu zituen aitak. Eraman hemendik behingoan, erabaki zuen talde-buruak Lehentxeago alaba altxatu zuten beso berberak jaso zuten aita ere. Horretan ari zirelarik, ez zuten ikusi nola menderatua uste zuten neskak ahal bezala zutitu eta aitaren gerria besoez inguratu zuen. Ze kristo zabiltzate, haserretu zitzairen talde-buruak. Jauna, mesedez, eskatu zion Gorriak inoiz baino ozenago eta etsituago. Mesedez! Beste muturreko bat jo zion talde-buruak. Nazka eginda naukazue, jarraitu zuen larruzko bota luze eta distiratsuak jantzitakoak. Aitarengandik bereizi nahi ez badu, hor konpon. Eraman biak.”

Xabier Montoia, *Golgota*. Elkar. 2008, 9-10 or.

- Biak ala biak hasierako jarduerako Maravillasen bizitzari buruz ari dira, baina, ahots narratiboaren arabera, nork kontatzen du gerra kanpotik eta nork barrutik?
- Modu objektiboan kontatzen dira pasarteak ala ez?
- Zer narratzaile mota erabiltzen da testuetan? Narratzaile orojakilea, lekukoa, objektiboa, subjektiboa...?
- Gure liburura bueltatuz, nondik eta nola bizi du gerra *Behi euskaldun baten memoriak* eko Mo protagonistak?
- Zer da gerra beretzat? Eta Golgotako pertsonaiarentzat? Eta Maravillasentzat?

Irakurketatik sorkuntzara

2.4. Sorkuntza literarioa

Aurreko jardueran ahots narratibo desberdinak aztertu dituzu. Oraingoan, horretan oinarrituta zuk sortuko duzu pasartetxo bat. Aukeratu Juana Josefa Goñi Sagardiaren edota Maravillasen pasarteak, eta idatzi han gertatutakoa bi ikuspuntu desberdinetatik: lehenengoan, kazetari bazina moduan; bigarreanean, protagonistaren ikuspuntutik.

Ondoren denon artean identifikatuko ditugu desberdintasunak eta gogoeta egingo dugu.

3. Denboraren gurpila

Helburuak. Gaitasun hauek jorratuko dira:
– *Ezagutza literarioa (1)*: Hipotesiak egiten

Ikus [Chema Madoz](#) argazkilariaren argazkia.

Zer bururatzen zaizue? Argazki honek irakurriko dugun pasartearekin zerikusia izanen du?
Bai, zertan?

Pista gehiagorik nahi?

Ikus ere [argazki](#) hau eta [erloju](#) hau.

Irakurri bitartean

Hirugarren pasarte irakurri:

--Aizu, laguna, lagun on ona, ez al da iritsi ordua? Ez al dugu garaia? --deitu ninduen nire barruko Setatsu, Ahots edo dena delako horrek aspaldi, tximista eta trumoi gau batez, eta ondorenean memoriok idazteko agindu zidan. Alegia, ez nuela mundu honetatik aldegin behar aurrez nire testigantza utzi gabe.

Hasiera batean nekoso ekin nion, eta soilik lasaitasunagatik, Setatsuak bakea eman ziezadan. Ordea idaztea oso gustukoa izan nuen segituan, eta buru belarri eta adar murgildu nintzen gogoratzeko lanean. Hala iruditzen zitzaidan: arindu egingo nintzela karga batez eta, galdeak lurra jiratzen duenean bezalaxe, txukundu eta saneatu egingo nituela barruak. Lerrorik lerro, sailez sail, erantzun egingo nien galderei, eta agerian utziko nire bizitzaren materia.

Baina, mundu honetako gauza gehienak bezalaxe, ilusioa zen nire hasierako asmo hura. Zeren, nahiz asko saiatu, lumak ez baitaki goldearen moduan aurreratzen, ez baitu memoriaren lurra xuxen eta zehazki harrotzen, baizik eta desordenuan, baldarki, esan behar direnak hondoratuz eta esan behar ez direnak argitara ekarriz. Memoria horietan, nire bizitzaren materia azaltzen ote da? Ez zait bada iruditzen. Begiratu dagoeneko idatzi dudanari eta harritu egiten naiz: ez dut kontatu ustez kontatu behar nuena, eta iritzi askok ez dute nireak ematen. Esaterako, ahala eduki eta Balantzategira itzuliko nintzatekeela idatzi nuen hasieran, eta aitoren faltsuagorik ezin dut imajinatu. Balantzategira joan? Ezta pentsatu ere. Igualekoxe bizi naiz Pauline Bernadetteren ondoan.

Okerrena, halere, ez da gezur asko egotea, zeren beharbada memoria guztien xehetasuna dugu hori. Okerrena zera da, arindurik ez duela gogoratzek edota gogoratutakoa paperean jartzeak. Urritu orde, galderak biderkatu egiten dira, eta larritasunak sakondu. Gu behiok sagarrak bagina, adarrean ondo-ondo heldu eta justu orduantze ereriko ginatete lurrera, galdera guztiak erantzun eta gero. Baina ez gara sagar, ez gaude inoiz heldu eta osatu, eta, adarretik erortzean, gurekin izaten dugu berdetasunaren lotsa. Esaera zaharrak dioten bezala:

Behi zaharra, ume hiltzen da

Esan nezake beste modura ere: Denboraren Gurpila geratzen denean, Sekretuen Gurpilak jarraitu egiten du jiraka eta erantzunak emanez. Agian erantzun hori jaso egingo du norbaitek, agian galdu egingo da beste edozein gurpilen lokatz izpia bezala: baina, batera edo bestera, antzu ala emankor, Sekretuen Gurpilak bizitza luzea du.

Idatzitakoa erreparasatu eta bete egiten zait burua: Zer izan ote da Genoveva? Atera ote zuten kartzelatik? Eta Balantzategiko basoa, erne ote da berriro? Hartu ote zuen bere kastigua Antioju Berdek? Eta La Vachek? Zer egiten ote du La Vachek orain?... galdera asko, galdera gehiegi, eta halere ez galdera denak. Zeren, latzagoak ere etortzen baitzakkit burura. Esate baterako: zer naiz? Zergatik nago hemen? Barrutik hitz egiten didan Setatsu hori, zein ahots da zehazki? Zeren, nahiz Bernadettek Bidani behi zahar hark esaten zidan gauza bera esan, hots, mintzo hori nire Aingeru Goardakoarena dela, niri ezinezkoa egiten baitzait holakorik sinestea. Batzuetan pentsatzen dut ni neroni naizela, eta bi ahots ditudala, barrukoa eta kanpukoa. Memoriok irakurrita ere, esplikazio hori iruditzen zait serioena. Baina, horixe, ondo jakiterik ez dago.

Beraz, arindurik ez dago, gogoratzeak edota gogoratua paperean jartzeko lanak ez digu inolako zamarik kentzen. Aitzitik, zama gehiago ekartzen du, askotan harakinaren atzaparra bezala sentitzen dena.

--Zer diozu, Mo? --esan zidan lehengo batean PaulineBernadettek komentuko baratzean geundela, bera azenarioak ateratzen eta ni azenario probatzen.

--Azken denboran zinez penaturik ikusten zürüt --gaineratu zuen.

--Ez dut ezer, Soeur. Bakarrik zahartu egin naizela. Eta Uztapidek behin kantatu zuena, arbol zaharrak ez du besterik, zotz iharra eta orbela.

--Hori trufa düzü, Mo --atera zen bera niri azenario ttiki bat emanez-. Zu ez zira neholaz ere zahartürrik. Orhoitzite nola ibili zinen lehen aldiz. Altzürüküra joan ginelarik. Trapataka egin zenüeningürüa. Errazü egia, Mo. Zuk beste zerbait derabilzübürü beltz horretan.

--Bai, egia da --aitortu nuen, eta gogoratzeak berarekin dituen nekeak aipatu nizkion geri. Nire memoriok ez dutela egia guztia esaten, eta horretaz gainera kezka eta galdera besterik ez didatela sortzen.

--Horregatik nabil erorixea --bukatu nuen.

--Hori trufa düzü, Mo --egin zuen berak barre burua azenario lerrotik altxatu gabe-. Badiakizüt izkribatzaile entseatüa zirela baina hanbateraino! Ez, ez, zuk beste pena eta xangrinak ditüzü bihotzean, Mo.

Urte asko dira PaulineBernadette eta biok elkarrekin gabiltzala, eta ondo ezagutzen nau, inork baino hobeto. Ni dudati gelditu nintzen, egia aitortu ala ez aitortu.

--Erraidazu, Mo --eskatu zidan berak azenarioak utziz. Besoak tolestu eta zain jarri zitzaidan.

--Bada, hemen arazoa da gogoratzeak agindu zidala barruko ahotsak, bizitutako guztia erreparasatzeko. Urtetan aurrera zaude eta bada garaia, esan zidan barrukoak. Bada memoriak idazteko garaia, esan zidan. Eta aurren aurrena ez, baina aspaldi honetan oso konturatuta nabil. Alegia, oso agindu arriskutsua izan zela hori. Izanez ere, noiz idazten dira memoriak? Bada kamioaren azken errebueltara iritsitakoan. Eta hortik nire ikara, Soeur. Zer pasako da memoriak bukatzen ditudan egunean? Barrukoak zerbaitengatik aipatuko zidan testigantza uzteko kontu hori.

Bernardo Atxaga, Behi euskaldun baten memoriak. Pamiela., 1991, 163-166 or.

3.1. Denboraren joana

- Gurpilaz aritu gara aurreko pasartearen lanketan. Oraingoan denboraren joanaz aritu gara eta pasartearen badirudi ideia hori Denboraren Gurpilaren bidez adierazten dela. Ados zaude? Zergatik?
- Horrez gain, Atxaga pasarte honetan Sekretuen Gurpilaz ere ari da, zer adierazten du? Liburuan aurreko kapitulu batean agertzen da, gogoan duzu? Non?
- Sarrionandiaren *Hau da ene ondasun guztia* liburuaren **II. galdera** izeneko poema entzun du. Hemen ere denboraren joanaz mintzo da. Adi egon, hemen beste modu batez ari da, ezta?

*Presoa zelda bazterrean,
Bakarrik mintzatzen bezala.
Baina ez, armiarma bati
galdetzen dio "Noiz arte?"
Armiarma, berehala,
zintzilikatu eta haria
luzatzen jaisten da.
Eta badirudi hari luze hori dela
armiarmaren erantzuna*

- Poema honetan nola adierazten da denboraren joana?
- Sarrionandiaren poeman "bakarrik mintzatzen bezala" entzun dugu. Noiz erabiltzen dugu *bezala* hitza? Zertarako? Irakurri nobelako pasarte batetik ateratako adibide hau:

"...goldeak lurra jiratzen duenean bezalaxe..."

Zein baliabide literario darabil esaldi horretan?

3.2. Izenburuak eta irudiak

Hasierako pasarte honetan Setatsuak Mori memoriak idazteko garaia heldu dela dio. Mok memoriak erreparasatu ditu eta burua bete egin zaio.

- Liburuko kapitulu guztiek izenburu bana dute. Atxagak hau proposatzen du: "*Oraingoz behintzat, hementxe bukatzen dira memoriak*" Eta zuk zer izenburu jarriko zenioke?
- Azken erronka gisa, bila ezazu Interneten irudi bat, azken pasarte hau aski ongi laburtzen duena.

Irakurketatik sorkuntzara

3.3. Jatekoak

- Hirugarren pasartearen bukaeran, Mo eta mojaren arteko elkarriketa horretan hain zuzen ere, jatekoren bat bost aldiz ageri da. Zein da?

“...bera (Pauline Bernadette) **azenarioak** ateratzen eta ni **azenario** probatzen”

- Aurreko bi pasarteetan Mok beste jatekorik probatzen al du, zeintzuk?
(1. pasartearen belarra eta elurra eta 2. pasartearen arroza)
- Jaki horiekin guztiekin (**belarra-elurra-arroza-azenarioa**) Moren bizitzaren inguruko istorio txiki bat eginen duzue. Horretarako erreparatu noiz eta zer testuingurutan agertzen diren jaki horiek.
(*Mo behi arrunta zen, belarra jaten zuen, baina egun batean konturatu gabe elurra jaten hasi zen...*)

3.4. Memorian gordetzekoak

Jatun ona da behia, baina horrez gain, bere inguruan gertatzen ari denaz jabetzeko gai da, eta ondoren hori memoria-liburu gisa aurkezten du. Azken batean, memoria liburua ahanzturaren kontrako idatzkia da. Zuk zer idatziko zenuke zure memoria-liburuan ahantz ez dezagun?



Lan [hau Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia](#) baten mende dago.

Honakoak egin ditzakezu:

- Partekatu — partekatu, kopiatu eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan.
- Moldatu — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu edozein xedetarako, baita merkataritza-xedeetarako ere.

Honako baldintzen arabera:

- Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.
- PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.